



OIARTZUNGO UDALA

UDALEKU IREKIAK 2006

HAURREK IZENA EMATEKO DEIALDIA

Aurreko urteetan bezala, aurtengo udarako Udal Gazteria eta Kirola Sailak udaleku irekiak antolatu ditu Uztailan zehar Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Lehen Hezkuntzako haur eta gaztetxoentzat (1994 eta 2002 urteak bitartean –biak barne- jaiotako haurrak).

Udaleku Irekiak euskaraz izango dira eta Oiartzungo haur guztiei zuzenduta daude, ikasturtean zehar landu duten euskararen ezagutzari jarraipena eta erabilera emateko helburuarekin (B eta D ereduko ikasleentzat).

Honen bitartez Udalekuetan parte hartu nahi duten haur eta gazteen gurasoei jakinarazten zaie **haurren izena emateko epea martxoaren 6tik 22ra bitartekoa** izango dela eta Haurtzaro Ikastolara, Elizalde Herri Eskolara edota Udaletxeko Informazio Bulegora jo beharko dutela.

Lehenik, 65 € ko kuotaren ordainketa martxoaren 6tik 22ra bitartean egin behar duzue KUTXAren edozein bulegotan udaletxeko kontu honetan sartuz dirua eta haurraren izen-abizenak adieraziz:

2101 0060 00 00000 89367 KUTXA OIARTZUN

Ordainketa KUTXAn egin ondoren **martxoaren 22a** baino lehen izen emate orria bete behar duzue **Haurtzaro Ikastolan, Elizalde Herri Eskolan edo udaletxean. Ez ahaztu izen ematerakoan, KUTXAko ordainagiriaren kopia eramatea.**

Epez kanpoko izen ematerik ez da onartuko, inolako kasutan.

Udalekuetan izena ematerakoan adierazi beharko da haurrek inolako alergiarik ote duten, botikarik hartzen ari ote diren edota laguntza berezirik behar duten. Baita, zein autobus geltokia erabiliko duten bai joaterakoan bai bueltatzerakoan.

Udalekuak uztailaren 1etik 31a arte iraungo dute, goizero 9,30etatik 13,30ak arte.

Oiartzun, 2006eko otsailaren 28a.

GAZTERIA TEKNIKARIA